


June Pujana Palacin

Fmaila • 2 saria

June Pujana Palacin naiz, Beasaindarra. Zortzi urte ditut eta La Salle ikastetxeko ikaslea naiz. Nire zaletasunen artean gimnasia erritmikoa, korrika egitea eta saski baloian jokatzeari gogoa dauka. Asko gustatzen zait bestalde irakurtzea eta horren ondorioz ipuinak idaztea. Poz handiarekin hartu dut sari hau eta idazten jarraitzeko indarra eman dit benetan.



KLOEREN NAHIA

Kloeren amak Parisen egiten zuen lan gozotegi txiki batean. Alarguna zen. Gorako solairuan etxea zeukaten eta beheko solairuan gozotegia. Umeari asko gustatzen zitzaion txokolatzeko Eiffel dorrea egitea, trufak dorrearen puntan jartzen zituen, txokolatzeko bonboi zuriak berriz, dorrearen azpian. Louvre museoa karameluzko makiltxoak eta kolorezko krema erabiliz egiten zuen.

Amak ez zekien gauean Kloe gozotegira jaisten zela azukrezko irudi eder horiek egitera. Eskolan fitxarekin dorre Eiffel egiten zuen eta andereñoak beti errieta egiten zion. Behin bere amak horietako bat egiten harrapatu egin zuen, baino ez zion errietarik egin, txokolatzeko, karameluzko, koloredun natazko eta trufa usain gozoz eginezko irudi eder eta gozo horiek asko saltzen zirelako. Amak ordu hauetan ez esnatzeko eta asteburutan berarekin lan egiteko esan zion. Jendeak pastel eta gozo asko erosten zituen eta Pariseko beste gozotegietara ez zen jende asko sartzen, amaren eta Kloeren gozotegira ordea bai.

Urteak pasa ahala Kloeren ama asko zahartu zen, bere eskuak ez ziren hain arinak eta dardar batean ibiltzen ziren. Geroz eta lan gutxiago egiten zuen gozotegian. Gozotegiaren ardura Kloeren eskutan geratu zen. Pariseko negu gogor batean, otsail hotz batean Kloeren ama asko gaixotu zen. Bere amari agindu zion gauza handi bat egingo zuela berarengatik eta bere oroimenez. Egunak eta egunak triste baino pentsakor pasa zituen, azkenean ideia zoragarri bat bururatu zitzaion; Eiffel dorrea egin!

Egunak, asteak eta hilabeteak lanean egin zituen txokolatzeko Eiffel zatiak egiten. Eskailerak, igogailua, torloiluak hau da, dorre Eiffelak daramatzan xehetasun guztiak txokolatzeko prestatuak zituen.

Azkenean eguna iritsi zen, bi egun poliki-poliki igaro zituen dorrearen muntaia eginez eta erakusleihoan hiru metroko dorrea egin zuen. Jende guztia gozotegi aurrera etortzen zen dorre handia ikustera eta denda barrura sartzen ziren txokolatzeko Eiffel txikiak erostera.

Herri, hiri, eta mundu guztiko turistak etortzen ziren Kloe egindako artelana ikustera, inor ez zen etxera itzultzen txokolatezko Eiffel ertain edo txiki bat erosi gabe. Kloe, berak egindako lanez oso, oso arro sentitzen zen. Bere ustez bere ama ere arro sentituko zela pentsatu zuen. Mundu osoko gozogile famatu guztiak etortzea lortu zuen. Harrituta geratzen ziren horrelako artelan ederra ikustez.

Beti betirako gozotegiaren izena inork ahaztu ez zezaten, izen eder bat pentsatu zuen buruari mila buelta eman ondoren;

ANGELE eta KLOE gozotegia jarri zion izentzat. Angela baita zen, Kloen amaren izena. Horrela lortu zuen bere nahia betetzea.